



2011-2012

A 2. PROA PLANA: Eskolan Laguntzeko Programa

Deialdiaren xedea

Bi xede edo helburu ditu deialdiak:

- Programa berritzea ikasturte honetan jadanik programan parte hartu duten eta 2011-2012 ikasturtean parte hartzen jarraitzeko eskaera egin duten Lehen Hezkuntzako 68 ikastetxeen eta Bigarren Hezkuntzako 41 ikastetxeentzat, baldin eta Berritzeguneko txostena positiboa izan bada.
- Programa handitzea 2011-2012 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe eta Bigarren Hezkuntzako 6 ikastetxe berri hautatuz.

Hartzaileak

Programaren hartzaile izango dira Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak. Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, komenigarritzat jotzen badute, 3. eta 4. mailako ikasleak ere sartu ahal izango dituzte programan. Lehentasuna izango dute eskolan zailtasuna edo atzerapenak dituzten ikasleak, horren arrazoia beren gizarte-egoera desabantailatsua bada. Hala ere, elkarrekintza heterogeneoko testuinguruetan ikaskuntzak aberatsak izaten direla aintzat hartuta, eskola-errendimendu oneko ikasleak parte har dezakete taldeetan, baina aurrez adierazitako lehentasunak errespetatuta beti. Ikasle berriak sar daitezke ikasturtean zehar, baldin eta taldeak gehiegi betetzen ez badira.

Esleipena

Programa hau aurrera eramateko, proposatutako modalitatearen arabera, programaren garapenerako zenbateko ekonomikoa esleituko zaio ikastetxeari. Hura eskola-orduetatik kanpo egingo da. Programarako dedikazioa duen irakaslerik bada ikastetxean, eskola-ordutegiaren barruan sartuko da programaren dedikazio-ordutegia.

Berariazko baldintzak

- a) Talde bakoitzean 12 ikasle izan daitezke gehienez, eta 7 izan beharko dira gutxienez.
- b) 2010-2011 ikasturtean programa onartuta ez duten ikastetxeek proiektua aurkeztu beharko dute, deialdi honetako jarraibideei lotutakoa.

Programa lantzeko jarraibideak

Eskolan laguntzeko programaren helburua da eskola-arrakastako indizeak hobetzea, eta, horretarako, hauek egin nahi dira:

- Laguntza eta bitartekoak eman ikasleei, batik bat ingurune fisiko edo estimulu egokirik ez dutenei, denbora osagarri bat erabil dezaten beren eskolako atzerapenari aurre egiteko edo hura prebenitzeko.
- Oinarrizko gaitasunen garapena hobetzea; batik bat, irakurketa, gai instrumentalak, lanaren antolaketa eta ikaste-ohituren eskurapena.
- Ikasleek beren gaitasunei buruz dituzten itxaropenak eta ikastetxeak ikasleei buruz dituenak hobetzea.
- Familien eta ikastetxeen arteko harremana hobetzea, elkarrekiko.

Programak ildo horretan garatzeko, jarduera-ildo hauek kontuan hartu behar dituzte ikastetxeek:

- Programa honetako jarduerak ikastetxeak aniztasunari erantzuteko egiten dituen jarduera orokorren parte izan behar dute. Ikastetxe osoaren proiektua da, zuzendaritza-taldearen lidergoan. Haren koordinatzaile izango dira aholkularia



(Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan), orientatzailea (Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan), DBHko koordinatzailea edo ikasketa-burua.

- Laguntzaren egitekoa ez da ohiko irakasleak ordezteko edo haiek irakatsitakoa edo haien egitekoak bikoiztea; aitzitik, laguntza horren egitekoa da ikasleei laguntza indibiduala eta kolektiboa ematea, beren eskolako lanetan sortzen zaizkien zailtasunak gaindi ditzaten. Berariaz, ikasleari laguntza emango zaio:
 - Eskolen eguneroko martxan eguneratzeko eta, beharrezkoa bada, geroko eduki batzuk prestatzeko.
 - Ikaskuntza instrumentalak hobetzeko.
 - Eskolako lanaren plangintza planifikatu eta ordenatzeko, eta modu eraginkorrean ikasteko ohiturak eta teknikak indartzeko.
 - Eskolan izan ditzakeen gatazkak behar bezala konpontzeko.

Laguntza hori ikaskuntzako giro kolektibo baten testuinguruan eman behar da, berdinen arteko laguntza sustatuz eta koordinazio estua landuz irakasleen eta programako partaide guztien artean.

Egiteko hauek izango ditu koordinatzaileak:

- Jarduera-ildoak finkatzea tutoreekin batera, eta begiraleen eta irakasle laguntzaileen tratua koherentea izango dela bermatzea.
- Tutoreen eta begiraleen arteko zubia izatea.
- Familielikiko koordinazioa eta azken horien inplikazioa bermatzea.
- Zuzenean arduratzea programaren funtzionamenduz, nahiz eta zuzendaritza-taldea izango den haren arduradun nagusia.
- Administrazioak programa koordinatzeko antolatzen dituen jardueretan eta prestakuntza-jardueretan parte hartzea.
- Zuzendaritza-taldeari laguntzea kanpo-ebaluazioa egiten (Hezkuntza Ministerioa).

Laguntzeko programa begiraleekin egingo da (ahal den neurrian, ikasle ohiak, unibertsitate-ikasleak eta perfil horretako pertsonak izango dira), erraz konektatuko baitute ikasleekin eta informazio-iturri ona izango baitira irakasleentzat. Begirale horiek ikastetxearen konfiantzakoak izan behar dute. Horrez gain, aukera ona da ikasleek beren elkarrekintzak zabal ditzaten, eskolako errutinak eten ditzaten, etab. Salbuespenez, eta aurkeztutako proiektuak horretarako nahikoa arrazoi ematen badu, ordutegi-kreditu bat eska daiteke ikastetxeko irakasleak eman dezaten laguntza hori.

Eskolan laguntzeko programak 5 orduko dedikazioa izango du astean; horietatik, 4 ordu ikaslearekin zuzenean emango dira, eta ordu 1 jarraipena egin eta ikastetxeko irakasleekin koordinatzeko.

Baremoa (Eskaera berrientzat)

1. Proiektuaren balorazioa eta deialdian azaldutako helburu eta irizpideak betetzeko modua: **gehienez 30 puntu.**
Proiektu bat hautatzeko, 18 puntu izan behar ditu gutxienez.
2. Programan parte hartzen duten eragileen arteko koordinazio-maila eta familielikiko koordinazioa: **gehienez 10 puntu.**



3. Programan parte hartzen duten ikasleen tipologia eta ingurune behartsuetan bizitzea.

Programan parte hartzen duten ikasle bekadunen portzentajea **P**

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 15$	1 puntu
$15 \leq P < 30$	2 puntu
$30 \leq P < 50$	3 puntu
$50 \leq P < 70$	4 puntu
$70 \leq P < 80$	5 puntu
$80 \leq P < 90$	6 puntu
$90 \leq P$	7 puntu

Programan parte hartzen duten ikasle immigranteen portzentajea **P**

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P$	4 puntu

Programan parte hartzen duten gutxiengo etnikoetako ikasleen portzentajea **P**

$P < 5$	0 puntu
$5 \leq P < 20$	1 puntu
$20 \leq P < 50$	2 puntu
$50 \leq P < 70$	3 puntu
$70 \leq P$	4 puntu

4. DBHko 1. eta 2. mailan matrikulatutako ikasleen ratioa.

Ratioa > 20 ikasle: **5 puntu**

Berariazko betebeharrak

Aukeratutako ikastetxeek betebeharrak hauek dituzte:

- Jarduerak 2011ko urriaren 1ean hasi eta 2012ko maiatzaren 31 amaitu behar du.
- Hautatuak izan ondoren, parte hartuko duten ikasleen familien idatzizko adostasuna jaso behar dute ikastetxeek. Horrez gain, 2. eranskina behar bezala beteta bidali behar dute zonaldeko Berritzegunera, urriaren 30a baino lehen.

ADI: Programak bat etorri behar du deialdiko jarraibide orokorretan zehaztutako baldintzekin (bigarren jarraibidea), betebeharrarekin (zazpigarren jarraibidea), eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin (bederatzigarren jarraibidea).



A – 2. 1. ERANSKINA

ESKOLAN LAGUNTZEKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERA

Ikastetxea: Kodea:

Udalerria: Lurraldea:

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak ondoren adierazitako talde- eta begirale-kopurua eskatzen du PROA Laguntza Programa dinamizatzeko 2011-2012 ikasturtean, erantsitako datu orokorren aurreikuspenaren arabera.

Talde-kopurua:

Begirale-kopurua:

Salbuesenez, Lurralde Ordezkaritzak aldeztu aurretik onartzen baditu horretarako arrazoiak, ikastetxeko irakasleek eman diezaiekete laguntza taldeei. Kasu hori ematen bada

Talde-kopurua:

Ordu-kopurua:

AZALPENA:

IKASLEEN DATUAK

DBHko 1. eta 2. mailako gelak edo LHko 5. eta 6. mailako gela-kopuru osoa	
DBHko 1. eta 2. mailako edo LHko 5. eta 6. mailako ikasle-kopuru osoa	
Programaren onuradun izango diren DBHko 1. eta 2. mailako edo LHko 5. eta 6. mailako ikasleen kopurua	
Desabantaila sozio-hezitzailek izan ez eta programan parte hartzen duen DBHko 1. eta 2. mailako edo LHko 5. eta 6. mailako ikasleen kopurua	
Programan parte hartzen duten ikasle bekadunen portzentajea	
Programaren onuradun izango diren DBHko 1. eta 2. mailako edo LHko 5. eta 6. mailako ikasle immigranteen kopurua	
Programaren onuradun izango diren DBHko 1. eta 2. mailako edo LHko 5. eta 6. mailako eta gutxiengo etnikoetako ikasleen kopurua	

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura eta zigilua



A – 2. 2. ERANSKINA

ESKOLAN LAGUNTZEKO PROGRAMA

(Urriaren 30a baino lehen bidali behar da Zonaldeko Berritzegunera)

Ikastetxea:Kodea:

Udalerrria:Lurraldea:

DATU OROKORRAK

DBHko 1. mailako gelak edo LHko 5. mailako gela-kopuru osoa	
DBHko 1. mailako edo LHko 5. mailako ikasle-kopuru osoa	
DBHko 2. mailako gelak edo LHko 6. mailako gela-kopuru osoa	
DBHko 2. mailako edo LHko 6. mailako ikasle-kopuru osoa	
Programaren onuradun izango diren DBHko 1. mailako edo LHko 5. mailako ikasleen kopurua	
Desabantaila sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 1. mailako eta LHko 5. mailako ikasleen kopurua	
Programaren onuradun izango diren DBHko 2. mailako edo LHko 6. mailako ikasleen kopurua	
Desabantaila sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 2. mailako eta LHko 6. mailako ikasleen kopurua	

PROGRAMA LANTZEN DUTEN BEGIRALEAK

Izen-abizenak	Programan ematen dituen orduak



PROGRAMAKO IKASLEAK

Taldea___ (talde bakoitzeko bat)				
Izen-abizenak	Jaiotza-urtea	Maila eta taldea	Familiaren konpromiso formala dago	Oharrak
1.-				
2.-				
3.-				
4.-				
5.-				
6.-				
7.-				
8.-				
9.-				
10.-				
11.-				
12.-				
Taldekoko ikasle-kopurua guztira, eskola-zailtasunak ez dituzten ikasleak barne				

KANPOKO LAGUNTZAK: GURASO-ELKARTEA, UDALA, GKEak, ETAB.

Entitatea	Inplikaturako pertsona	Programan ematen dituen orduak	Ematen duen laguntza

.....(e)n, 2011ko(a)ren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura eta zigilua